

Hainbat ekitaldia Euskararen Nazioarteko Egunean

2015/12/09

Arrasateko Campusean abenduaren 2rako euskaraz inoiz baina gehiago egiteko erronka proposatuko zen, eta euskararen erabileraren neurketak egin zituzten ikasleek. Abenduaren 3an neurketaren emaitzak erakutsi ziren eta *Zure hitzak goxoagoak dira EUSKARAZ esaten dituzunean* lelopean txokolatea banatu zitzaien Iturripera gerturatu zirenei. Guzti honi kolorea jartzeko Garaiako egoitzan ikasle talde batek euskararen aldeko mezua zuten globoak prestatu zituzten.

Arrasateko Euskaingintzak antolaturik, Mondragon Goi Eskola Politeknikoko ikasle eta irakasleak Arizmendi Ikastolako, Arrasate Herri Eskolako, Arrasate Institutuko, AEK-ko, Udal Euskaltegiko eta Helduentzako Hezkuntza Iraunkorreko ikasle eta irakasleekin batera "Euskal Herrian Euskaraz" abestu zuten herriko hiru gunetan eta argazki erraldoia atera zuten euskararen alde.

Orona-Ideo campusean berriz, astea girotzeko euskararen ginkana antolatu zuten; lau egunetan lau galdera egin zituzten eta abenduaren 3an ikasleak hainbat jokotan lehiatu ziren bertan erakutsi zituzten euren abilezia eta indarrak. Goiza borobiltzeko eta indarrak hartzeko hamaiketakoa prestatu zuten ikasleek eta unibertsitateko langile eta irakasleek.

Ospatu dezagun gaur eguna, baina gogoan eduki dezagun gaur arte eta bihartik aurrera beti dela euskararen eguna.

